1994ko abuztuak 23 / 74. zbk.

Astekaria

# BARREN

elgoi

# Kalian gora kalian bera







MAPFRE

ASEGURU ETXEA

(TilzapkirOual 4e,,s"datyazeibf#

San Frantzisko 40 behea.v 74 05 82 20870 ELGOIBAR

# BERISTAIN

## EDARI BANATZAILEA

**hiaki _ 74 38 27**



*Viña Nerea,*

*frijakozalio zuw ardoa*

Ondo pasau jaixak !!

Coca-Cola
Coke
MARCAS REG.

KELER
18
DE LUXE BEER

AGUAS
ALZOL1X
URAK

OKEY cacao

BODEGAS & BEBIDAS

VERN

RAM

elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
u 7441 12
ARGITARATZAILF_A:
Elgoibarko Izarra.
LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.
ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.
ПIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.
ERREDAKZIO KONTSEIWA:
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edume Bilbaa, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.
KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro.
MAKETATZAREAX:
Maite Rementeria, Edu Sanz.
PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz, Maite Iriondo
ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez, M. Angges Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Itzior Agirregornezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazakkal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabaloga, Ainara Burgaina, Urtzi Eixobe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Negibel, Enetz Ezenarro, Ifziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Arriaia Gorostiza, Alionso Gui116, Maite Iriondo, Ekoitz isasi, KOKOE, Enrike Larraiioga, Imanal Latrañaga, Horitz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, IFiaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Araitz Vives, Aifor Zabaleta, Yulen Zabaleta.
BANAKETA ARDURADUNA:
Imanor Larraiiaga
INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E. (Zubilloga Otiati)
TIRADA: 3.300 ale
LEGE GORDAILUA: 55-1.038/92
ISSN: 1133-021X

eigoiBARRENek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik,



HAINBAT ABL912



# Soka dartza

ill rain egun gutxi atal honetan soka dantzari buruzko aipamen bat irakurri nuen eta nire iritziak azaldu nahiko nituzke.

Juan Antonio Urbeltzek, Juan Inazio Iztuetaren (1767-1845) interpretatzailerik onenetakoak erakusten digun bezala, lerro hauen bidez Soka Dantza laburki berrikusi edo aztertu nahi nuke.

Urteetan zehar, dantza hau hainbat izenez ezagutu izan dugu, "Soka dantza", "Esku Dantza", "Painelu Dantza", "Gizon Dantza" eta "Aurreskua", baina lehenengo biak dira nolabaiteko indarrez ohitura honetan jarraitzen dutenak.

Gipuzkoan ohiturarik zaharrenak lehen dantzariak edo "Aurreskulariak" dantza hasiko duela eskatzen du, eta sokako azkenak edo "Atzeskulariak" erantzuten dio. Zati honetan figura garrantzitsu bat dugu, Iztuetak "Zubia" deritzona, baina nik "Korapilo" hitza egokiagoa deritzot, dantzarien sokako buru eta azkenaren azpitik bi aldiz pasatuz.

Emakumeak geroago sartzen dira sokan, beraiei dantzatu ondoren: lehenengoa sokaren aurrean jarri eta lehen dantzariak agurtzen du; bigarren bat azkenaren aurrean jarri eta honek dantzatzen dio; eta ondoren, sokan dauden beste mutilentzat, emakumeak sartzen dira. Zati honetan, emakumeek sokan beraien tokiak hartzen dituztenean berriro ere "Korapiloa" egiten da, bi aldiz oraingoan ere. Soka, gizon eta emakumeek ez dute eskua emanda osatzen, Elizak debekatu zuenetik zapien bidez baizik.

Horregatik idazten du "Gizon Dantza Udaletxeko areto nagusitik hasi behar dela eta danbolinaren laguntzaz herriko plazara atera".

Honekin Iztuetak Gipuzkoako dantzen haunditasuna eta perfekzioa erakutsi nahi die bere etsaiei, XVIII. mendeko dantzetatik datozen era guztietako lizunkeria eta gaitzen aurrean: Kontradantzak, balsak, fandangoak, e.a.

Udaletxea bera oso esanguratsua dugu: dantzarien soka beregan duen etxea da, herriko sinbolorik haundiena. Areto nagusian dago sinbolo honen bizia, soka eskilaratik behera jeisten da, plazan bukatzeko. Herriko plazak, elkarbizitzako ardatza, espazioz, bere biribiltasunean, dantza jasotzen du. Plaza sokaz biribiltzen da, bere ekintzaren metafora gisa: "lotura" edo "korapiloa".

Aurten, abuztuaren 24an sinbolikoki Arturo Zubiaurre (1931ean Aurreskulari zena) eta Jon Lizarralde (1994an Aurreskularia) lotuko ditugu eta azken 70 urte hauetan soka guganaino heltzen lagundu diguten hainbat elgoibartar gogoratuko eta eskertuko ditugu.

Halaber, soka honek elgoibartar guztiak lotu gaitzala gaurregungo jaietan, baina lehengo ohiturak ahal den neurrian eusten saiatuz.

Joxemiel Barandiaran gogoratzea ez legoke gaizki hemen, zera esaten zuenean: "nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar dugu".

Ondo pasau jaixak.

**Jose Inazio Sarasua**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutako aldizkaria*

# HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Iriondo

Ondo pasa
San Bartolome Jaiak

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

94 6-C:JATETXEA



Nafarroa enparantza. Tel 74 12 30

Berezitasunak

® GOSARIAK o PINTXOAK o
(8,30etatik aurrera)
MENU BEREZIAK
MENU TRADIZIONALAK

65:44 /2444a
54» Bartolomiak!!

AITTOLA ZAHAR

Madarixa auzoa. Tel. 81 52 53. 20870 AZKOITIA

JAYETXEA eta LOGELAK

Ondo pasau
San Bartolome
jaiak!




NEKAZA1 T.IJR19110A7

PROIEKTUAK 1151Z 11ffititlitUNIZA E7.1i

!Ezbatruinnik

14

SAN FRANTZ1$K0 KALEA 23, BEHEA ELGOIBAR TEL_ 74 10 94 - 74 37 50

***Zer eratako fanak egin eta gainbegiratzen ditu GTEk bere bezeroentzat?***

Iturgintza eta berogailu instalakuntzak, barrurako nahiz kanporako PVC edo aluminiozko aroztegia, igeltsaritza, eskaiolak, kristaldegi artistikoa eta konbentzionala, pintura apaingarria: imitaziozko akabatuak, izkutu veneziarrak, frantziarrak, saneamenduak.... Lan guzti hauek gremio bakoi tzeko onenak egiten ditu.



***Zein lan harreman ezartzen du GTEk bezeroekin?***

Lehenengo kontaktua egiten dugunetik, bai proiektua egiterakoan zein honen garapenean ere, gure arkitektuek, teknikoek eta dekoratzaileek, bezero bakoitzaren gustuez eta beharrez jardun eta hitzegiten dute konfidantza 0,50Z.

***Zeintzuk dira bezero batek aurkitzen dituen abantailak GTE moduko enpresa batekin lan egiterakoan?***

Argi eta garbi esan behar da gurekin egindako kontratuak ez direla

119-4117



Argi eta garbi esan beharra dago gurekin egindako kontratuak ez direla gainorttzekoekin egindakoak baino garestiagoak. Papeleoa eta nahi izanez gero, dirulaguntzen gestioa ere; gure lana izaten da.



gainontzekoekin egindakoak baino garestiagoak. Papeleoa eta nahi izanez gero, diru laguntzen gestioa ere gure lana izan ohi da. Gainera, garantia tekniko eta estetikoak izango ditu, merkatuko benetako prezioetan. Gure bezeroek ez dituzte proiektuaren eta obraren zuzendaritzaren dirusariak ordaintzen. Hori guzti hori da eskaintzen duguna.

***Hitz egin dezagun garantiei buruz.***

Bezeroarekin hitz egindako guztia alde biek sinatutako kontratuan agertzen da eta bertan, prezioak, kalitatea eta obra burutu beharreko epea zehazten dira. Horrez gain, materiale tekniko guztia, hau da, planuak,



memoriak, materialeen zerrendak eta abar, sistema informatiko modernoenen bitartez eta etengabeko eboluzioaren baliabideak erabiliz tratatzen da.

***Zer gomendatzen du GTEk altzarietan eta etxerako ekipamenduetan?***

Oso pozik gaude lan egiten dugun etxeekin, batez ere, eskaintzen duten diseinuaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen kalitate paregabeagatik. Zenbait izendatzekotan, FAGOR, SELLEX, CATTELAN, PEROBEL, GARNELO,... aipatuko genituzke.





rretratu hau **Mugerza sendiak** lagatakoa da. Eurak esan digutenez erretratua Txiki egunean ateratakoa da. Urtea, berriz, 1962.

Zeintzuk diren erretratukoak? Ezkerrik hasita:

**M. Gloria Mugerza, Iñaki Mugerza, J.M. Gabilondo, Enrike Gabilondo** eta **Pedro Suarez** (denetarik txikiena).



Erretratu hau ere San Bartolome Txiki egunekoa da. Berau 1951. urtean atera zuten. Ikusten duzuen bezala, orduan ere baziren zorioneko emakumeak. Ikus dezagun zeintzuk diren printzipeak eta printzesa. Ezkerretik hasita:

**Iñaki Gabilondo, Xabier Argarate, Ana Maria Urdingio, Sabin Argarate** eta **Juan Maria Mugerza.**


jUitiₜtL
GIPE
I.P.E. 2.044 GESTOREA
GEST1O 1NMOBILIARIOA
INMOBILIARIAKO PROFESIONALEN EUROPAR KONFEDERAKUNDEAREN KIDE
San Bartolome 2, behea - a 74 34 65 - ELGOIBAR

TRAIlle"IDUNZ
PUR I NA BANATZA1LEA
Animatientzat eta nekazaritzarako behar duzun guztia daukagu. Zatozil
P. Muguruza,l. rr 74 15 97

karkizano
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak
San Bartolome 18. ☎ 74 08 49



Jaietako ale berezi honetan ezin genituen jatorduak kanpoan laga. Erretratua **Jose Luis Aranak** lagatakoa da eta berak esan digunez erretratukoak BIAR-DANA soziedadekoak dira.

1963. urteko Txiki egunean ateratakoa da eta Aranaren esanetan orduan ohitura zen gizonezkoek Txiki egunean afaria elkarrekin egitea. Ernakumezkoak postrera azaltzen omen ziren. San Bartolome egunean, berriz, senar-emazteek elkarrekin afaltzen omen zuten.

Jakin nahi al duzue zer afaldu zuten? Hasteko, Jabugo urdai azpikoa, gero espan¯agoak langostinoekin, ondoren solomiloa eta postrea, pastela. Dena ardo onarekin bustita. Bukatzeko, kafeak, kopak eta "Habanos" puruak izan zituzten.

Bistan da orduko sukaldeak ez zuela gaurkoaren inbidiarik! Zeintzu diren afari eder hau egin zutenak? Ezkerretik hasita:

**Primitivo** Uriarte (t), **Bittor Barrutia (t), Juan Garate, Adolfo Arana (t), Alberto Gurrutxaga (11, Felix Aiesta, Antonio Usabiaga (t), J.M. Rivero, Julian Zuloaga (t), Pepe de la Cruz (t), Luis** Etxaniz, **Luis Arkarazo** eta **Mariano Barrutia.**


KAIA
Kafetegia

JOSE ANTONIO ileapaindegia
•Hiesa eta hepatitisaren kontrako tresneriaz horniturik.
•Ilearen zainketarako tratamenduak.
•"KERASTASE"k aholkatutako ileapaindegia.
*ZATOZ GUREGANA !*
Errosario 30. Tel. 74 14 92. ELGOIIIAR

GOR0051112Z.
• Pod LIBURelliDENDX
• Siaid» otettefuae4
• Opariak
Errosario 16, Tz 74 03 88

TXIMI, S.A. TAILERRAK
Tornu, fresadora eta rektifikatu LANAK
OLASO industrialdea behea. Tel. 74 10 43 Faxa: 74 10 43

# 117-GOIBARKO
# OSASUN GIDA

PODOLOGOA

| | | |
|---|---|---|
| • iñaki Ribero .................. | San Bartolome, 28 .......... | Tel.: 74 32 90 |

PEDIATRA

| | | |
|---|---|---|
| • Etxaniz ........................ | San Frantzisko, 36 .......... | Tel.: 74 07 86 |
| • Loiola ........................... | San Frantzisko, 36 .......... | Tel.: 74 07 96 |

ODONTOLOGIA

| | | |
|---|---|---|
| • Gerardo Natenzon ....... | Santa ana, 20 .................. | Tel.: 74 36 35 |
| • Agustin Sanchez ......... | Antonio Arriliaga, 8 .......... | Tel.: 74 37 47 |
| • Antton Izagirre .............. | San Frantzisko, 31 .......... | Tel.: 74 19 52 |

BIHOTZA ETA BIRIKAK

| | | |
|---|---|---|
| • J. Etxeberria ................ | Santa Ana, 1 .................... | Tel.: 74 22 75 |

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

**AKUPUNTURA**

| | | |
|---|---|---|
| • J.J. Bastida ................... | Arregitorre, 7 .................. | Tei.: 74 09 48 |
| • Kemen Belardenda | | |
| Agustin Bentoso | San Bartolome, 25 .......... | TeL: 74 40 31 |
| • Nozki Belardenda | | |
| Jose Maria Gorritxo ... | Foruen enparantza, 6 ...... | Tel.: 74 18 61 |

NATUROPATIA

| | | |
|---|---|---|
| • Kemen Belardenda | | |
| Mari Sol Saez ............ | San Bartolome, 25 .......... | Tel.: 74 40 31 |
| • Nozki Belardenda | | |
| Jose Maria Gorritxo ... | Foruen enparantza, 6 ..... | Tel.: 74 18 61 |

**REFLEXOTERAPIA PODAL**

| | | |
|---|---|---|
| • Kemen Belardenda | | |
| Esther Zelaia ........... | San Bartolome, 25 .......... | Tel. : 74 40 31 |

ATS

| | | |
|---|---|---|
| • Jose Luis Diez Tejero ... | San Roke, 26 .................. | Tel.: 74 15 42 |




LIXEMO

SUKALDE ALTZARIAK

ATEAK

TARIMAK ETA PARKETAK

LURREN ZEPILATU ETA BARNIZATUAK- PINKYa

PVC LEHIOAK

Pedro Migel Urruzuno 10, behea.
Tel. 74 18 15
ELGOIBAR

01, Mcver

lbaitarte kalea 3 - 167 Postakutxa
Tel. (943) 74 26 69 - 74 44 38 - FAXA (943) 74 30 77
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ELETRONIKA INDUSTR1ALA

INFORMATIKA INDUSTRIALA

PROZESUEN AUTOMATIZAZIOA

INGENIERITZA ETA FABRIKAZIOA

MASERek jai zoriontsuaii« @pa alakflage elIgabartarroi eta kanpotik etwitzen EaveCel giaztioi,

# Jaietan libre da dena?



### M. KARMEN ELORZA
53 urte, etxekoandrea

**Sasoi batian erretiruak beste ordena batian izaten. zian. Oin gaztiek gaupasa itxen dabe, jai giruak alegrixia sartzeizu ta zeu ere berandutxuo erretiratzen zera.**



### JOKIN REZOLA
13 urte, ikaslea

**Gehixo lagatzen digute urtetzen ta kalian egoten. Kuadrilan desmadre gehixao eukitzen dogu baina hala ere ez gera pasatzen.**



### NURIA ESTARTA
19 urte, ikaslea

**Piskat gehixo bai. Orduak ere desberdinak dia, beranduo juten zera etxera ta jendia ere irekixaua da. Zeozer gehixo ligatzen da baina ez asko.**



### MARI SOL MATEO
32 urte, etxekoandrea

**Jaixetan beti ibiltzen zara normalean baino piska bat gehiago. Orain gaztetan baino gutxiago haurren ardura ere daukagulako.**



### XABIER OSORO
30 urte, teknikoa

**Jaixetan beti itxen dia normalidadetik kanpoko gauzak baina nik uste dot bihar diala holako eskapiak. Marjena haundixaua izaten da.**



### LUCIO BEITIA
56 urte, maestro industriala

**Normalian baino gehixo sobrepasatzen gera. Jaixetan gehixo justifikatzen da edatia, lagunarteko bromak eta berandurarte ibiltzia.**

LANBROA
elgoibar

Arrillaga,
INPRIMATEGIA
DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, KARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET
Trenbide, 13 behea.ELGOIBAR. 74 01 87 Fax: 74 27 40

artebas. s. 11.
ENTREPRESENTZAKO OPARI NORBANAKOTUAK
URREA - ZILARRA - DAMASKINATUA
BURIL GRABATUAK - PIN'AK
DISEINU ETA TRESNERIA PROPIOA
180 postakutxa · 72 (943) 74 39 50 - Faxa (943) 74 18 28

# ELGOIDARHO GURSS DISCO-ak SAN EARTOLOETAHO

23an - IILFON a JESUS

24ao - fILFON OE JESUS

2Seao - JOVI [TFIE RLINCE]

GUASS fr admie~ RECORDS [VALENCIA]

26ao

27an CHIMO [CONTRRSEN11]

E8an V1OENTE [TERMINK]


ELGOIBAR 1994
SAN BARTOLOME JAIAK

# ELGOIBARKO UDALAK

# SAN BARTOLOME

# JAI ZORIONTSUAK

# OPA DIZKIZUE

# ELGOIBARTAR GUZTIOI




**ELGOIBARKO UDALA**



***Elgoibartarrok:***

***Atarian ditugu gure herriko Bartolome Deunaren jaiak; har ditzagun alaitasunez eta pozez beterik.***

***Herritar guztiok goza ditzagun jai nagusi hauek, eta arrazoi bategatik edo besteagatik herritik kanpora igaro behar dituzuen eigoibartarroi nire agurrilc beroena eta ongi nahla,***

***Jaiak dei eginda biltzen garen guztiok giro jatorrean igaro ditzagun gure Bartolome jaiak.***

***Ondo pasa!***

***Zuen alkate eta lagun,***

Jose Ignacio Elkoro-Iribe San Martin

BERUNIK GABEKO GASOLINA • MICHELIN AGENTZIA • GURPIL NEURKETA
PRESIOZKO GARBIKETA • GARBIKETA NEUMATIKOA • ASPIRAGAILUA

111Z W GA:OLINDEIIA

Offda,as'a cfalr 8a/4alafrreLafal/



SAN BARTOLOME

# ABUZTUAR

**GOIZIAN**

**9,30etan:** Etxanizen omenez XLVIII. bizikleta fasterketa.

**EGUERDIAN**

**Iean:** Kanpai hots eta txafliguekin jaien hasera.

**arraian,** Mauxitxaren kalejira.

**ARRATSALDEAN**

**4`30etan:** Errafdof eta buruhaundiak dultzaineroekin.

**5etatik 9ak arte:** Haurrentzako jofasak Foruen Enparantzan.

**6etan:** Futbol partidua Mintxetan: C. D. Elgoibar - Aurrera (Ondarru).

**8'30etan:** Salbe Nagusia Udal Txistulari Taldearekin.

**GAUEAN**

**1 I etan:** Herriko Dultzaineroak.

**Segidan 3ak arte:** Dantzaldia Plazan "Sexteto Erreka" rekin.

**1 2etan:** Mauxitxaren kafejira.

**MAALAKO PARKEAN**

**6,30etan:** Txupinazoa Maalan.

**Ondoren,** bertsolariak, trikitilariak, herri kirolak, dantzariak eta joku herrikoiak,

tolatzaileak: Jarrai, Gazte asanblada, timilitaristak, Zazpiki eta Gestorak)

# Bezpera egunean hasten zara jai giroan?



Isabei Alberdi (27 urte)

"Bizperatik klabijia ipinitxa eukitzen dot, gainera anbiente gehixao eukitzen dot. San Bartolome gaua trankiIaua izaten da zela hurrengo eguna Txiki eguna dan... Egunaren araberakoa izaten da juergia ere, batzutan beste batzutan baino fuertiaua, Txiki egunian, por ejemplo. Neri bezperia gustatzen jata asko, egixa esan ez naiz juten txupinazora... Badakitx bi egoten diala, eguerdixan bat eta beste bat hirurak aldera baina ez dakat idea handirik horri buruz. Ni normalian etxian egoten naiz aber txarangia noiz pasauko dan, jaixak hasi diazen seinalia eukitzeko. Normalian arratsaidian irtetzen naiz, iluntzi aldera.

**Asmua?** Juan zan urteko egualdixa ez badau itxen a tope ibiliko naiz, baina eurixa itxen badau, askotan kalera urtetzeko gogua ere kentzen jatzu. Baina ilusiva nik beti euki dot, kanpora juten banaiz ere oporretan, jaixetarako beti bueltan etorri izan naiz, San Bartolomiak sagrauak dia. Oin arte ez dot sekula fallau 27 urtian."


Yudego
LURRINDEGIA
Oboto, f.41.4 41.44!
San Frantzisko, 2. Tel. 74 02 99

DEKORAZIOA
Ane
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIAK
Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Maria Urizar
ileapaindegi mixtoa
ONDO PASA SAN EAZTOLDA1!!
Errosario 9-lezice 74 44 89 ELGOIBAR

MEKAN1ZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAPII BEREZIAIK
153 Potsa kutxatila
Ibaitarte kalea, 2
74 12 97 » 74 06 64
Faxa 74 43 21

## 9,30ETAN BIZIKLETA LASTER ETA

Etxaniz Memonalaren XLVII. edizioa korrituko da aurten. Gure-Bide elkarteak antolatuta, "Lehendakari Txapelketa"rako baliagarri den afizionatuen mailako lasterketa korrituko da. Elgoibartik hasita, Plaentxl, Mutriku, Bergara, Mendaro, Deba, Azkoitia, Lirretxu, eta Antzuola pasa beharko dituzte, bidean hiru mendate igo beharko dituztelarik: Kalbarixoa, Azkarate eta Deskarga. Onenak irabaz dezalal



AZPILIKUETA

## EGUERDIKO 1EAN TXUPINAZDA



Arratsaldeko ordubatean hasten dira San Bartolome jai ofizialak. Plaza Handia 'inoiz ez bezalako kolorez jazten da eta ehundaka juergazale biltzen da bertan txanpain botilak astintzeko intentzioarekin. Jaiasek hasi dira, desnnadreak i egunetarako lizentzla eskuratu du.

12Lri ZILu WP

A


o ORRIZKO

**ZELETA**

**Barazkiak**

*tpur ieruur albtutti ora4a4a*



*uaffraijala lattedalo* **lakatm,**

Z ţaws* 841,1 "f rri

**ZELETA BASERRIA tr 74 30 22**
**San Migel Auzoa - ELGOIBAR**

k4tetii
Liburudenda

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Aldizkariak
Eskolako materiala eta Liburuak
Erregaliak

San Bartolome, 5
rr 74 04 98

SAN BARTOLOME

# ABUZTUAK 24

**GOIZEAN**

**9'30etan:** Dultzaineroen Diana

**1 Oetan:** Udal Txistulari Taldearen Diana.

**10'1 Setan:** Udal Musika andaren kalejira.

**1 1 etan:** Meza Nagusia.

**Jarraian,** Soka Dantza Foruen *Plazan* Haritz Taidearekin.

**Segidan,** Udal Musika Banda, Itxaropena eta Parrokiako Abesbatzaren kontzertua Udaletxeko arkupeetan.

**ARRATSALDEAN**

**Setan:** Erraldoi eta Buruhaundiak dultzaineroekin.

**Setatik 9etara:** Haurrentzako jolasak Foruen Enparantzan.

**6etan:** Profesionalen pilota partiduak ikastolako frontoian.

**GAUEAN**

**1 1 etan:** Suzko Erroberak Astondoa etxearen eskutik.

**Jarraian,** Dultzaineroak.

**Ondoren, "Nueva** Alaska" Orkestarekin dantzaldia.

**Goizaldeko 4etan:** Txokolate jana Maalan.

**MAALAKO PARKEAN**

**7etan:** Bertsolari gazteak.

**1 1 etan:** Maixa eta itziar eta Gozategi trikitilariak.

# San Bartolome eguna al da ederrena?



Josefina Peñalba (54 urte)

"Neretzat Meza Nagusia zoragarria da, nik lehen abestu egiten nuen eta benetan gustuko dut. Aspalditik datorren ohitura da, oso berezia. Egun horretan eta batez ere, goiz partean dauden ekintza guztiak gustatzen zaizl<it, meza, aurresl<ua, bandaren kontzertua... Egun konpleto konpletoa izaten da neretzat.

**Ospakizun berezirik?** Umetan nere etxean oso egun berezia izaten zen San Bartolome eguna, bazkari familiarra izaten genuen. Gaur egun, Elgoibarren bagaude, egun hori berezia egiten saiatzen naiz, bai bazkari aldetik eta bai bestela ere. Urte asko egon izan gara jaietara etorri gabe, oporrak ahal den gehien aprobetxatu asmoz, baina San Bartolome egunean beti gustatu izan zait herrian egotea.

**Juergak?** Gaur egun nahikoa desligatua nago ni jara-*na* kontuetatik. Txiki eguna, adibidez, orain dagoen bezala nahlko basatia dela uste dut, gehiegi. Seme-alabak "a tope" Ibiltzen dira baina niretzako juerga urteak atzean geratu dira.

**Elegantzia?** Bai, arropek ere nolabaiteko elegantzia izan ohi dute San Bartolome egunean. Egun solemnea da hori. Txiki eguna dator gero, askatasun handiago batez ibiltzen da jendea egun horretan, Karnabalen antzeko zerbait dela esango nuke nik: egun lasai eta serioen ostean, deshinibizioa, poza, animazioa eta juerga datoz."

01
1110 11
9"
GAZTEENTZAKO
110DA

*Sao antatoote ataz eta yonettatudale, yza ,diy'que9f,e, de/rit*

OSO ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIXAK!!

TiK-TaK

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

Cordon,Vilarchao, c.b.
DEIGORAZICDA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, P1NTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Te1.74 28 74 - 74 05 70

## I 1 etara NAGUSIA

San Bartolome egunean Meza *Nagusia izaten* da *garrantz* *ekintzarik itsuenetarik oa.* Bertara herriko *agintariak* joaten *dira* eta erretratuan ikus dezakegun *bezala, mezatik irteterakoan* Txistularien *atzetik* joaten *dira* Udaletxe pareraino.



## SOKA DANTZA HARITZ-EN ESKUTIK



**Udaletxe parean Aurreskua dantzatzen du Haritz Dantzari taldeak. Aurreskuaren ondoren, 1932. urtean ekin zitzaion ohitura zahar batekin ematen zao jarraipena: Soka Dantzarekin. Aurten ekitaldi berezia egingo da, herriko dantzariak gogora ekarriz.**

A





JAIETAN
OILASKO GOXoA ETA
ETXEKO SAGARDOA
NON?
LOS
HERMIN101
TABERNAN

# Dultzaineroen moizela diana

**1971 urteko abenduaren 25ean jo zuten lehenengo aldiz Elgoibarko kaleetan. Ricardo Gorritik, Victor Zubiaurrek eta Txomin Mujikak osatzen dute gaur egun guztiok ezagutzen dugun Dultzaineroen Taidea. Halere, eurak hasi aurretik, egon ziren herrian beste zenbait instrumentu bitxi hau jotzen zutenak. Hor zeuden, besteak beste, Albitxuri zana, Urtialcoa eta, Ballegoiti baserrian ere, ba omen zegoen beste bat. Haiek, ordea, metalezko dultzaina jotzen zuten, Juan Mujika elgoibartarrak egiten zituenak. Oraingoak egurrezkoak dira, ebanozkoak, eta dultzainaz gain, tanborra ere izaten dute lagun.**



1 950-60 bitartean Euskal Herri osoan dultzaina jotzen zuten hiru talde bakarrik geratzen ziren, eta hiruak Lizarrakoak gainera. Hauek ibiltzen ziren batera eta bestera, herriz herri.

*Behin* Ricardo Gorriti, Victor Zubiaurre eta Txomin Mujika elkartu ziren. Hauek, fruineako Dultzaineroen laguntzarekin dultzaina jotzen ikasi zuten. Ordu asko pasatu zituzten entsaioetan eta 1971ko abenduaren 25ean, Gabon egunean, jo zuten herritarren aurrean estralneko aldiz. Ordutik hona makina bat urte pasa dira. Baina, aitortu digutenez, hogeita hiru urte pasa eta gero, lehenengo egunean an besteko ilusioa dute.

Gaur egun, Musika Bandak kontzertua ematen duen guztietan dultzaineroen kafejira izaten da goizean goiz, San Bartolometan hauek dira zezenaren aurretik diana jotzen dutenak, Trinitate jaietan ere esnatzen gaituzte, San Antonetan, Gabonetan... Polkak, balsak, kalejirak... denetik jotzen dute dultzainero hauek baita Musika Bandan bertan ere, efektu berezi bat emanez bandaren ohizko soinuari.


MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak

**Planu** bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.



tr 74 30 55
FAX: 74 37 77
ELGOIBAR

ARMUETA



Isabel Ormazabal

*Harategia Urdaitegia*

*Jai zoriontsuak opa dizkizue elgoibartarroil*

San Bartolome, 16. Tel: 74 06 40


Argitu aurretik
suzko zezena...
Lamiak
zapata eta...
opari artean...
ezkutatzen dira...
euren aterpe
magikoetan...
baita erropa
artean ere...
GARATE
Ene bada!
Egunsentia...

MRW

WORLDWIDE COURIER

PNEUMAX

1 3 ll E 1.1 14 la,s.A.

Olaso Kalea, 15. Tel.: 74 41 44 - 74 41 74. Fax: 74 40 76 **ELGOIBAR**
309 postakutxa - 20.600 **EIBAR**

AUTOMATIZAZIO NEUMATIKARAKO OSAGAIAK





EDOZEIN ARAZORI AURRE EGINGO DIOTEN ELEMENTU NEUMATIKOAK

# IDEDLO SOIDIUIDE "GELAIX©":
# Je urte erremeriak mirdien



**- Gaur egun zeintzuk osatzen duzue Gelatxo taldea?**
- Enrike Egurenek saxofoia jotzen dau, Jose Makazaga debarrak baterixia eta neuk soinua.

**-Nola *hasi zinan?***
- 12 urte nakazela jun nitzan musikia ikastera Bastidakin, Bandako direktoria izan *zanakin.* Nahi naban tronpetia ikastia *baina* haura Iaga ta soinuakin hasi nitzan. Gero, Bereziartua organistiakin ere ibili nitzan.

**- Noiz izan zan erromerietarako saltoa?**
- 17 urtekin. Batera eta bestera juten nintzan soinua jotzera. Oin boda batera, oin barrixoko jaixetara...

**- Asko aidatu al dia erromeriak?**
- Lehen kanpo librian izaten zan. Etzauan oingo sala Fiestasik. Orduan arkupian ta rengo berdura plaza zaharrian eitxen zian erromerixak.

**- Jende askok dantzatuko zuen noizbait zuekin.**
- Ezin da sinistu ere ein, zenbat tokitxan ibifitxakuak geran. Gainera, garaf batian pagau itxen zan erromerixara jutiarren, ta orduan ere gainezka betil Hortik kobratzen genduan guk, zenbat eta jende gehixao jun, orduan eta betio ekartzen gendun boitsillua etxera. Oin, en kanbio, kontratua dao eta jende gutxi junda ere, iguar kobratzen dou.

**Zer da jendeak gustukoen duen dantza?**
- Edozein, bai soltia baitxa agarraua ere, pasodoblia, balsa, bolerua... Lehen Elgoibarren libre zanian agarraua itxia, Azpeitxixan ez zaben lagatzen. Hango jendia hona etortzen zan, neska mutilak elkarrekin dantzan itxeko.

**- Zein adinentzat jotzen du Gelatxok?**
Dantza itxia nahi daban guztixantzat, hor ez dao limiterik. Oin, gauza bat egixa da, oingo gaztiek ez dakixe agarraua dantza eitxen gure sasoil<uak moduan.

**- Gauza asko ikusten al dia eszenarixotik?**
- Enel Lehen parejia agarraua itxerakuan lepotik helduta ikustiak txokau itxen zaban. Oin ziharo normala da laztanak ematen ere ikustia.

**- Zerk ematen dio Gelatxori soinu berezi hori?**
- Ez dao sekreturik hor, norberak dakixan moduan jotzen dau ta, hortxe dao dana.










# Erraldoi eta buruhandiak, jaietakc ezinbesteke pertsonaiak

***Herri gurtietako jaietan presentzia berezia izan ohi dute erraldoi eta buruhandiek, Bi metrotik gorako poliesterrezko giza itzurako irudi hauek, Dultzaineroen doinuez lagunduta, Eigoibarko San Bartololome jaietan ere ohizko kalejirak egingo dituzte txikienen gozamenerako.***




Errege-erregina eta Aftzofako jaun-andreak osatzen dute errraldoi bikote parea. Hauezaz gain, kalejiretan haurren artean fasterketa bizienak sortarazten dituzten buruhandiak daude. 1988. urteko azken uholdeek Elgoibarren genituen erraldoi eta buruhandiak eraman zituen eta duela bi urte oraingo hauek ekarri zituzten. Hirurogeita hemezortzi urteko debar batek, Jose Ignazio Urbietak, egindakoak dira. Orain gutxi, bi buruhandi konpondu berri ditu Jose Ignaziok. Hilabete inguru hasi zen konponketekin, "berriro pintatu, zenbaft erretoke egin eta arrastadak kendu dizkiet". Jose Ignaziok berak fabrikatu zituen Eigoibarko buruhandi eta erraldoiak duela bi urte. Poliesterrez egindakoak dira. Lehendabizi, ordea, buztinean egiten dira, negatiboa ateratzen da bertatik, eta gero, neurri handian egiten dira. Hogei urte zituen Urbietak lan honetan hasi zenean. Lehenago Elizako irudiak egiten aritu zen, baina erraldoiekin hasi bezain pronto beste lagun batekin, Donostian jarri zuen tailerra. Gaurregun poliesterrez egiten dira buruhandiak, baina iehenago kartoizkoak omen ziren. Euria gaizki xamar jasaten zutenez, poliesterrez egiten hasi ziren. Gaurregun ez ditu fabrikatzen,"edadean aurrera noa, eta buruhandi berriak apenas egiten ditut orain, daudenak konpondu eta txukuntzearek1n nahikoa daukat".










LiALGC11114:O© LALLA Luitur rikarteak

SprGano[Inme zoriontsink

opa dizkizue elgoibartar guztioi.

"Euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa delako".

Elgoibarko Izarra eikartea

itpr

# ELGOIBARKO
# EUSKO ALKARTASUNAK
# SAN BARTOLOME
# JAI ZORIONTSUAK
# OPA DIZKIZUE
# ELGOIBARTAR GUZTIOI.

Txiki

# ABUZTUAK 25

**GOIZEAN**

**7`30etan:** Idiarena Herriko Dultzaineroekin eta Diana Mauxitxarekin.

**Jarraian** Sokamuturra,

**Ondoren** Salda eta txorizoa.

**EGUERDIAN**

**12etatik 3etara:** Kalejira Mauxitxa Txaranga osatu duten musikari guztiekin.

**ARRATSALDEAN**

**5etan:** Enbolatuak Plaza Txikian.

**6etatik letara:** Zezentxo eta Poney-ak umeentzat.

**Jarraian,** kalejira Mauxitxarekin 25. urteurrena ospatuz, (herriari dedikatua).

**6etan:** Profesionalen pilota partiduak Ikastolan.

**GAUEAN**

**1 1 etan: "Basakabi"** taidearekin dantzaldia Foruen Plazan.

**MAALAKO PARKEAN**

Amnistiaren Aldeko Gestorek antolatutako Presoen Eguna.

**Eguerdian,** bazkaria eta oroigarri banaketa.

**Arratsaldean,** Mauxitxa arangari omenaldia.

**aueko 1 ean: l** 6mm.tako likula.

# Nola bizi duzu Txiki Eguna?



*Juan* Migel Agirregomezkorta (40 urte)

"Askotan tabernan lan egitia tokatzen zait baina ahal detenian egun hori aprobetxatzia gustatzen jata.

**Gogoratzen al duzu mahatsaren ohitura?**

Bai, aspaldiko ohitxuria da hori baina oin galdu ein da. Sokamuturra eta gero, mahatsa hartzen gendun ta batzuk jan ta beste batzuk elkarri botatzen ibiltzen ginan. Lehen mahatsakin eitxen *zana* arduakin itxen da oin. Ardua botatzian ohitxuria ere aspaldikua da, baina oin dala bi urte hasi zian irina ta arraultzak ere botatzen.

**Juerga noiz arte?**

Lanian naonez ez da erretza izaten baina astixa detenian kuadrillakuekin juntatzen naiz. Urtero urtero itxen da kuadrillan bazl<arixa, gizonezkuak bakarrik. Hori sagraua da. Juergia goizetikan hasi eta gauerarte itxen dou. Egunian zihar gizonezkuak bakarrik ibili eta gero, gablan, nahi dabana andriakin urtetzen da."


11 Offigh _1 SYSTEM
MANTENUA ETA MANIPULAZIOA
LIKIDOEN FILTRAZIOA
Ibaitarte Polig. Ind. B-2-3 Pab. San Antolin Auzoa. ELGOIBAR
TEL: (943) 74 16 62 - 74 16 66 - P.K. 159 - FAX: 74 09 50

Gozo-Tokia
San Inazio, 1. 17 74 16 93
Jose
gotti,~4,1 eta laaftdiee

- Kontabilitate
- lan
FiSkal AHOLKULARITZA
URKIDI
ASEGILJRC)AK
Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

ce·smrD e
AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK S:L.
San Roke 30 bei-tea - Tel. 74 38 09 - ELGOIBAR

## ZEIZENA ETA GERO, SALDA ETA TXORIZOA

Txiki *Eguna* egun gogorra izaten *da,* ez dago *deskantsurako aukerarik.* Jendeak honen berri badauka eta zezena *bukatzeaz bat hamarretakoa* egiteko *irrikaz* egoten da. *Kazuelan bertan ikusten* dituzuen txorizo horiek ez dute *luzaroan aguantatzen, begibistan* dago demaseko estimazioa izaten dutela.


TXENTXO

A

## AURTEN 11101,AUXITXAK 25 URTE!



Hamarretakoa jan ondoren, txarangal Txiki eguneko txarangan zer pasatzen den kontatzea ez da batere erraza. Saltoak, izerd1a, ura, ardoa... dena nahasian eta dena beharrezkoa. Gainera aurten 11/1auxitxak 25 urte betetzen ditu. Txiki eguna egun berezia da!


U DEHABE
UDAL 11~ EUSKAMGEN MANKOMUNITATEA
IC NAFAHROA IMPAIUM17J,11
ľ 7.1 13 /I
20170-ELGO1IIM

EUSKARA DUGU JAI

SAN BARTOLOMETAN UZTARGAI

Uda betean bero
dator Bartolo urtero
euskara du lagun ero
Eigolbarren gaur eta gero

ZWIDTia
1TURGINTZA
GAS ETA BEROGAILU
1NSTALAKUNTZAK
Urasandi 26. Tel: 74 05 30

61te.teta
ZAPATAK ETA POLTSAK
7,9„°
(7 4/41(/
San Frantzisko 2 - lw 74 04 95 - ELGOIBAR

Alfe
EKAIHUNUKM
MELHERWEIME
Trenbide,1. w 74 19 47

GAZTE ETA

## ABUZTUAK 26

**GOIZEAN**

**8'30etan:** Idiarena Dultzaineroekin.

**Jarraian:** Sokamuturra.

**Ondoren:** Salda eta txorizo banaketa herriko kaleetan.

**11 etan:** Hiper Ginkana Plaza Txikian.

**11 tik 11,30etara:** "Jendaurreko Margo Lehiaketa"rako izen-ematea Udaletxeko arkupeetan.

**11,30etatik 1 era:** "Jendaurreko Margo Lehiaketa" Boldtolziko parkean.

**EGUERDIAN**

**1 ean:** Kalejira Mauxitxarekin.

**2,30etan:** Haurrentzako bazkari herrikoia Eskolakoek alaituta.

# Identifikatzen all zara Gazteen egunarekin?



Xabier Izagirre (23 urte)

„Gaztien eguna piskat berandu izaten da eta orduerako nahiko pasauta zaude, neri gehixen gustatzen jatazen egunak Bizperia eta Txiki egunak dia. Ez naiz oso identifikatua sentitzen Gaztien egunakin eta aukeran nahixao dot Txiki eguna.

**Ekintzetan parte hartzen al duzue?**

Egixa esan ez gera oso zaliak, kuadrilan ez dou ezer komentau ondiokan. Aurreko urtietan ez dogu parte hartu eta aurten ere... Jendian parte hartzia faita da, jaixak ez dia oso herrikoiak zentzu horretan.

**Eguna ala gaua?**

Jaiak gauez, Txiki eguna da egunez bizitzen dogun bakarra. Gaupasak? Nahiko zalia, bai. Bi edo hiru, gorputzak aguantau beste eta segun ze egun dan.

**Tabernetatik aparte?**

Noizean behin juten gera Plaza aldera edo Ikastolara kontzerturen bat badago.

**Lige asuntua?**

Ez gehixegi, nik usten dot jaixetan ez dogula aparteko gauzarik eitxen, gure kuadrilan behintzat ez gera asmo horrekin urtetzen. Hombre, argi dao jaixetan jendiak beste mentalidade bat daukala, libriaua, baina hala ere... **Jaixak Otik 10 era?** Zazpiko bat emango nieke."


ZURACOR, s. L.

Ibaitarte kalea, 11
Tel. 74 08 44
Fax 74 26 66
50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

La Estrella
ASEGURUAK
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABRITATE ETA FISKAL AHOLKU1ARITZA
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23


IDARRAGA
KAFEAK
Eguneroko errealdiak
Aupa San Bartolomiak!!

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

**ARRATSALDEAN**

**4,30etan:** Enbolatuak eta Poney-ak Plaza Txikian.

**5,30etan:** Gazteentzako enbolatuak Plaza Txikian.

**5,30etatik Betara:** Haurrentzako parkea Foruen Plazan.

**6etan:** Klub Deportiboak antolatuta, R. Sociedad B eta Mondragon taldeen parbdua Mintxetan.

**7etan:** Margo Lehial<etaren sari banal<eta.

**Jarraian,** Globo askaketa eta goxoki banaketa.

**7,30etan:** Mauxitxarekin buruhaundi eta erraldolak.

**GAUEAN**

**1 0,30etan:** Dantzaldia "Laiotz" ekin.

**1 1 etan:** Maalako parkean "Eskixu" eta "Zokoan".

**MAALAKO PARKEAN**

**7etan:** Bittor Aieperen kontzertua.

(Antolatzaileak: Jarrar, Gazte asanblada, Antimilitaristak, Zazpki eta Gestorak)

# Umeen eguna al da zuentzat onena?



Yvette Miguez (13 urte)

"Umien egunian egoten dia gauza gehixen guretzat. Goizian jokuak egoten dia prazan, gero bazkari herrikoia egoten da eta lagun danak juten gera bokadiluakin. Arratsaldian barraketan ibiftzen gera eta Mauxi-txakin ere saftoka eta dantzan, ask'o gustatzen jaku. Ponixetara eta zezenetara ez gera urte-tzen, bueno batzuk bai, baina gehixenak barreratik ikusten dou dana. Gabian ere urtetzen gera.

***Ordu* topia?** Bai, badakat. Jun zan urtian ordu bixak arte faga zien, aurten aber fortzen doten hirurak laurden gutxirarte fagatzia... Bueno egixa esan lagun guztixeri jartzen digute tope berdina. Gainera, Umien eguna berezixa danez ba denbora pfskat gehixao gelditzeko Jibriao dakau.

**Faltan?** Barraka gehixao. Lehen ¯bafance" eta holakuak ekartzen zeben baina oin parke berrixa zela ein daben, ez dao lekuril< eta beti datoz gutxi eta berdinak. Gainera guk bastante denbora itxen dou barraketan, txarangia eta holakuak ez dauden guztietan.

**Diru aldetik?** Ondo, paga ona ematen diabe, jaixetan eta Umien egunian gainera paga espeziala eukitzen dot, gehixao disfrutatzeko".





ASESORIA,
GOAR

AHOLKULARITZA

. KONTABILITATEA
. AHOLKULARITZA FISKALA
. LAN AHOLKULARITZA
. ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
. MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

Sun Bartoiome L behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 2] 29

GAZTE ETA

## ESKIXU ETA ZOKOAN MAALAKO PARKEAN

*Gazteen egunean musikak derrigorrez izan behar du bere tokia. Gaztetasuna eta musika beti egon izan dira lotuta eta honen adierazgarri gaur egun Elgoibarren dauden hainbat musika taide, Egun honetan, gau partera, Eskixu eta Zokoan rock taldealc arituko dira Maalako parkean.*



## HERRIKO TALDEEN KONTZERTUA



Bat, bi, Gazteen eguneko kontzertuaz gain, hainbat eldtaldi izango dira txosnek "l'ibrea" izendatu duten Maalako zonaidean. Herriko zenbait taldek jaietan jotzeko aukera izango dute Gestorak, Jarraik, Gazte Asanbladak, Zazpikik eta Antimibak larunbaterako antolatutako makrokontzertuan.


Iraegui -4ffli~how

ERROTULUAK

Olaso Poligono Industriala
Olaso Kalea 55zbk. A 3. solairua
Tel. 74 39 52 74 37 06 - FAX 74 39 51
ELGOIBAR



Elgoibarko PSE-EEak San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue herritar guztiei.

PSE PSOE

## JENDALIIIREKO LEHIAKETA



***Nahiz eta oporretan egon, formal asko egoten dira haurrak Parrokiako arkupeetan. Haurrentzako antolatzen den marrazki lehiaketak harrera polita izaten du eta bertara joaten direnek euren marrazteko abileziak erakusten saiatzen dira. Aurpegietara begiratuz gero, garbi dago gauzak serio hartzen dituztela.***

## HAUMWENTZAIKO JIOILASAK

